Hondakinak biltzeko zerbitzua Gabirian

SASIETA MANKOMUNITATEA

Gabiriako udala

- **Birziklaguneetan dauden edukiontzien** bidez biltzen dira hondakinak.
- **Birziklagunera sartzeko beharrezkoa da Sasietako identifikazio txartela**.
  Aztirian izan ezik
- **DERRIGORREZKOA** da hondakinak **BEREIZTEA** eta dagokion edukiontzian sartzea. **DEBEKATUTA** dago hondakinak lurrean uztea edo hondakinak nahasian edukiontzian sartzea!

Hondakinak **BEREZITA** bota behar dira edukiontzien **BARNERA:**

Beira

Plastikozko ontziak, metala eta brikak

Papera eta kartoia

Sukaldean erabilitako olioa

Arropa

Pilak

Birzikla daitezkeen hondakinak **asteko egun guztietan** atera daitezke, **edozein ordutan.**

Pixoihalak

EGUNERO bota daitezke **plastikozko poltsan sartuta.**

Hondakin birziklaezina "errefusa"

Edukiontzia **SOILIK ASTELEHENETAN** ireki daiteke eguneko 24 orduetan. Gainerako egunetan itxita egongo da.

TXARTELAREKIN irekitzen da

Eska ezazu udaletxean.

Materia organikoa bi aukera daude:

1 Edukiontzi marroia

GILTZAREKIN irekitzen da

Eska ezazu udaletxean.

Ontzi bat eta poltsa konpostagarriak emango dizkizute.

Erabili soilik poltsa konpostagarriak!

Poltsak amaitzen zaizkizunean beste batzuk **doan** lortuko dituzu udaletxean.

Hondakinik onena sortzen ez dena!

Materia organikoa

2 Konposta egitea

Berdeguneren bat baduzu, organikoa **etxean bertan konpost** bihurtu dezakezu.

Konpostagailua eta nahasgailua dohainik izango dituzu.

Jarri Sasieta Mankomunitatearekin harremanetan konposta nola egin ikasi eta beharrezko materiala eskuratzeko.

■ **Etxeko gauzak** (altzariak, etxetresna elektrikoak...), **hileko 2. OSTEGUN GAUEAN** atera behar dira. Utzi **birziklagunearen kanpoaldean.**

■ **OBRAKO HONDAKINAK,** zaborrak, paletak, txatarra, pneumatikoak, etab. **BETI GARBIGUNERA** eraman behar dira. Beasaingo Salbatore auzoan eta Urretxun, Deskargako bidean, daude gertuen. Informazio gehiago hemen: **www.sasieta.eus**



Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
9:00-12:30 / 15:30-18:30
Larunbatetan
9:00-13:00

Beasain



Urretxu



INFORMAZIO GEHIAGO www.sasieta.eus

Zalantzaren bat baduzu, entregatu dizkizugun bi gidak kontsulta ditzakezu:

“Hondakinak zuzen bereizteko gida”

“Horian, zer sar daiteke?”

ARRETA TELEFONOA: 943 16 15 55 (8:00etatik 15:00etara)

SASIETA MANKOMUNITATEA
www.sasieta.eus